

Hainbat jarduera, asteburu honetan, Europako Arkeologia Jardunaldietan

Europako Kontseiluko kide diren herrialde guztietan egiten dira eta helburua da herritarrak kultura aberastasun eta aniztasunaz kontzientziaztea

Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a. Europako Arkeologia Jardunaldiak Arabako Arkeologia Museoan izango dira asteburuan, eta edonork parte hartzeko moduko bost jarduera antolatu dituzte.

Europako Arkeologia Jardunaldiek botere publikoak eta arkeologiako protagonistak animatzen dituzte ondare arkeologikoari balioa ematera, eta Europako Kontseiluko kide diren herrialde guztietan arkeologiako protagonisten sare bat eratzten laguntzen dute. Helburua, hortaz, Europako herritarrak Europako kultura aberastasunaz eta aniztasunaz kontzientziaztea da, bai eta arkeologiari ikusgarritasuna ematea, herritarrei Europako kulturen mosaikoa ulertzeko aukera ematea, publiko berriak erakartzea eta ezagutzak trukatzeko laguntzea ere.

Arabara, hau izango da programa:

Ekainaren 19a, larunbata

- 11:30 Bisita gidatua: "Kuartangoko trikuharriak"
- 12:00 Bisita gidatua: "Iruña-Veleia erromatar hiria"
- 17:00 Irudikapen historikoa: Mariturri aztarnategia

Ekainaren 20a, igandea

- 11:00 Irudikapen historikoa: Mariturri aztarnategia
- Bisita gidatua: Arkeologia Museoa

Izena emateari buruzko informazioa atxikitako dokumentuan dago.